

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO MUSIKA KATEDRADUNAK ETA IRAKASLEAK
BATERAEZINTASUN ARAUBIDEA

I) ARAUBIDE OROKORRA.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 57. artikuluan arautua. Legegintzako Foru Dekretu horren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina.

- Bateriaezintasuna funtzionarioaren betebeharrak hertsiki betetzea eragozten edo kaltetzen duen, bere inpartzialtasuna edo independentzia konprometitzen duen edo interes orokorrak kaltetzen dituen zeinahi kargu, lanbide edo jarduera publiko edo pribatu gauzatzearekin, berdin norbere kasa edo inoren kontura denean, ordaindua denean edo solik ohorezkoa denean.

- Ezin izanen da soldata bat baino gehiago jaso (edozein aldizkako ordainsari, zeinahi delarik ere zenbatekoa eta izena) administrazio, entitate edo erakunde publikoen edo haien mendeko erakunde edo enpresen aurrekontuen kontura, salbu eta unibertsitate zentroetan irakaskuntzan aritzearen ondoriozkoak.

II) SALBUESPENAK.

Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 4.2 eta 7. artikuluetan aurrez ikusiak.

▪ Goi Mailako Musika Kontserbatorioetan eta Musikako Kontserbatorio Profesionaletan zerbitzuak ematen dituzten Musikako katedradunei eta irakasleei baimena eman dakieke bigarren lanpostu bat betetzeko kulturaren sektore publikoan, lanaldi partziala baino handiagoa ez den dedikazioarekin eta iraupen mugatuarekin:

a) Subjektuak: Musika katedradunak eta irakasleak, karrerako funtzionario gisa edo araubide administratiboan kontrataturiko gisa lanpostuak betetzen dituztenak lanaldi osoz edo partziales.

b) Bigarren jarduerarako baldintzak:

1. Ordutegia bateragarria izatea.
2. Kulturaren sektore publikokoa izatea.
3. Iraupen mugatua.
4. Lanaldi partzialeko dedikazioa.
5. Aipatu dugun 7. artikuluan aurrez ikusita dagoen ordainsari-muga.

▪ Bigarren jarduera gauzatzeko nahiatezkoa izanen da aldez aurretik espresuki izatea bateragarritasun baimena. Baimena ikasturte bakoitzerako eskatu beharko da.